

PLAN PREV. EUSKADIKO PENTSIOAK GARANTIZADO XXX

2023KO BIGARREN SEIHILEKO TXOSTENA

Hazkundearen dezelerazioa urtearen erdialdean espero zena baino txikiagoa izango den pertzepzioa sendotuz joan da azken hiruhilekoan, adierazle aurreratu batzuen arabera ekonomiak, batez ere Estatu Batuetakoak, erresistentzia handia izan duelako azken 2 urteetan metatutako tasa-igoeren aurrean. Ekonomia garatuetako enpleguaren eta kontsumoaren sendotasuna ikusita, pentsa daiteke atzeraldi ekonomikoa saihestu egingo dela; izan ere, azken hilabeteetan, inflazioa izugarri jaitsi da eta, horren eraginez, moteldu egin dira banku zentralak diru-baldintzak gogortzen jarraituko zuten aurreikuspenak -ekainean artean bazeuden-. Arrisku geopolitikoak gehiegi moderatu ez badira ere, tentsioak nabarmen murriztu dira eskaintzaren aldetik (botila-lepoak fabrikazioan, lehengaien hornidura-arazoak...), eta, horri esker, inflazioak nabarmen egin du hobera: tasa orokorrak ez ezik, baita azpiko tasak ere (prezioen indizearen osagirik hegakorrenak alde batera utzita). Eskariaren presio txikiagoak ere inflazioa txikitzen lagundu du. Hazkunde txikiagoaren eta inflazio moderatuagoen konbinazio horren ondorioz, banku zentralak aurreratu egin dute tasa-igoeren amaiera, eta merkatua prestatzen hasi dira 2024an hasiko diren beherakadetarako.

Urteko azken 2 hilabeteetan, ikusita inflazioa ez dela arazo izango, banku zentralak aldatu egin dituzte beren adierazpenak, eta horrek eurotako bonuen interes-tasen beheranzko lasterketa ekarri du. Horrela, 5 urterako Altxorraren bonuen BETA oinarrizko 60 puntu jaitsi da seiuhilekoan, eta oinarrizko 90 puntu baino gehiago azken 2 hilabeteetan, 5 urterako Alemaniako bonuen antzera. Beherakada horri esker, % 5 inguru handitu da Europako Diru Batasuneko gobernuak hiruhilekoan jaulkitako bonuen balioa.

Errenta aldakorreko merkatuak irabazi handiak izan ditu azken 2 hilabeteetan, % 12tik gorakoak Eurogunean zein AEBn, eta indizeek seiuhilekoan % 3ko eta % 7ko irabaziak izan dituzte, hurrenez hurren. Hori horrela gertatu da, 2023rako enpresen mozkinen hazkundeak beherantz berrikusi diren arren, urtean ia hazkunderik gabe geratu arte.

PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILAK

- . Euskadiko Pentsioak, Borondatezko Giza Aurreikuspen Erakundearen barnean dagoen ekarpen definituko banakako aurreikuspen plana 106-G zenbakiarekin dago inskribatuta Eusko Jaularitzaren Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan, V-20211702 zenbakiko IFZ du eta Arrasateko (Gipuzkoako) Jose María Arizmendiarieta pasealekua, z/g du helbidea.
- . Bazkide babesle-sustatzailea, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito
- . Gordailuzaina, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito

PLANAREN BILAKAERA

ALDIA	ERRENTAG. GARBIA
2.Seihilekoa	1,50
2023ko metatua	1,99
2022 Urtea	-4,33
Azken 3 Urteak	-1,20
Azken 5 Urteak	-0,14

DATU OROKORRAK

	EGUNGO SEIHILEKOA	AURREKO SEIHILEKOA
Ondarea	9.186.923,97	9.081.098,29
Partaidetza kopurua	1.480.131,93	1.485.005,74
Likidazio-balioa partaidetzagatik	6,206828	6,115194
	EHUNEKOA	KALKULO OINARRIA
Administrazio gastuak	0,58%	Ondarearen gaineko
Bitarteko gastuak	0,00%	Ondarearen gaineko
Errotazio ratioa	-1%	Ondarearen gaineko

MERKATU ARRISKUA

Errenta Finkoaren Iraupena	0,08
Errenta Aldakorraren %	--

ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

BALIOAREN DESKRIBAPENA	23/12/31ko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
ERRENTA FINKOA	9.205.112,86	100,00%
REPO	40.008,61	0,43%
BO. ESTADO ESPAÑA 240131 STRIP CUP	2.991.780,00	32,50%
BO. ESTADO ESPAÑA 240131 STRIP CUP	1.894.794,00	20,58%

BALIOAREN DESKRIBAPENA	23/12/31ko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
BO. ESTADO ESPAÑA 240131 S TRIP CUPON	1.994.380,00	21,67%
BO. ESTADO ESPAÑA 240131 S TRIP CUPON	299.157,00	3,25%
BO. ESTADO ESPAÑA 4,80% 24 0131	1.984.993,25	21,56%
ZORROA GUZTIRA	9.205.112,86	100,00%